

Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunean ... Argitara eman ezazu ikusezintasuna

Gaur, beste behin ere –nahiz eta eguneroko zerbait izan– pertsonarik pobreenak, babesgabeenak eta/edo zaurgarrienak baztertzen eta zapaltzen dituzten errealitate guztien gaineko kontzientzia hartu nahi dugu, eta izena jarri nahi diegu errealitate horiei.

Horrez gain, aurpegia ere jarri nahi diegu. Aupegia jarri, eta aurpegia eman justiziaren eta pertsona pobreen duintasunaren alde. Bazterrean ikusezin geratzen ari diren horiek bistaratu nahi ditugu.

Aporofobia, pobreenganako arbuioa eta ezinikusia, pertsona jakinen duintasunaren aurkako atentatua da, eta erronka bat gure bizimodurako eta demokraziarako.

Horregatik, gaur, Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Egunean:

Adierazten dugu pobrezia eta gizarte-barterketa giza eskubideen urraketa larrien adierazle direla.

Pobreziari eta gizarte-bazterketari dagokionez, desberdintasunak ez dira geografari lotuta bakarrik azaltzen, baizik eta genero, etnia, erlijio, sexu-kondizio eta abarri lotuta ere bai.

Antonio Guterres NBEko idazkari nagusiak esan duen bezala, ‘pobrezia errotik kentzea ez da karitate-ekintza bat, baizik eta justizia’.

Kezkatuta gaude, susperraldi ekonomikoa ez baita iristen ari babes gutxien duten pertsonengana, eta pertsona ugari atzean ari baitira geratzen.

Eta gainera, gure gizartean oraindik ere arbuio-, arrazakeria- eta xenofobia-jarrerak daude beste herrialde edo kultura batzuetatik iristen diren pertsona eta kolektiboenganako, batez ere, pbreak direlako (=aporofobia).

Hori dela eta, honako hauek eskatzen ditugu:

Egin daitezela politika ekonomiko eta sozial egokiak, desberdintasunak murrizteko eta pobrezia eta gizarte-bazterketa errotik kentzeko.

Kontsumo- eta ekoizpen-moduak jasangarriagoak izan daitezela, eta jo dezagula eredu berdintasunezkoago eta sozialago baterantz, ingurumena gehiago errespetatzen duen eredu baterantz.

Egin daitezela inbertsio sozialak, gure gizartea kohesio sozial handiagokoa, justuagoa eta berdintasunezkoagoa izatea lortzea lehenetsiko dutenak. Gizarte askotarikoa eta plurala lortzea lehenetsiko dutenak.

Egin daitezela zenbait lege, gutxieneko soldatak eta lan prekarioak dituzten pertsonen bizitzak prekarizatzen dituzten arauak nahiz enplegu duin bat sustatzen ez duten arauak indargabetzeko.

Hezkuntzak susta ditzala errespetuaren, elkarrizketaren eta abegi onaren balioak, gizarte plural eta askotariko batean.

Eta gure gizartean babes gutxien duten pertsonen ondoan egoteko jarrera hartzen duten eta bidegabeko pobreziaren aurka oihu egiten duten beste erakunde, talde, kolektibo eta pertsonekin batera, guk ere hau esaten dugu gaur:

Pobreziaren aurka, eman aurpegia! Hitz gutxiago eta ekintza gehiago!

2018ko Urriaren 20an, Vitoria-Gasteiz-en